



“Arteta”ko itxurrixa, S. Inazio egun baten

Mallabiko “Arandoño” auzotik gora joanda “Itxurria” izeneko parajian dauan itxurri hau, Feliciano ta Pedro Bilbao anaixak altxatu zebe. Egilliak èuren izenen onduan, bateron batek apurtuko ete zeban bildurretan edo, “Dejadme en paz” bat idatzi zebe, (orduan be iñon gauzak bakian ixten ez zekixanik be bazeuan itxuria!).

Erretratua etaratzeko orduan aurrekaldian ipinitxako gizon aldra horretan, itxurrixa bedeinkatu zeban Mallabiko d. Alejandro abadian, Nemesio sargentua, D. Lorenzo mai-xua, Luis Albizu (Luis Txikixa) txistularixa ikusi leikez beste askoren artian.

Gerra osteko lehenengo urtietan hasitxako ohitxuriari luzeruan eutsi jakon: S. Inazio egunian “Arteta”ra igo ta bertan egunpasia ein. Erminxan gerran hildakuen aldeko mezia entzun ostian, bazkaldu ta arratsalderarte kantuan ta dantzaz ekiñaldi gogorra eitxen zan.

Bazkarixa burdixakin igoten zan ta musika bandia be behin baiño gehixaotan bertan jotzen egondakua da.

Gabaz gero Ermuko plazan bailiak egoten zian. Santixauak S. Inazio eguneko jai honekin ta hurrengoko domekan Probalekun eitxen zian idi-probekin luzatzen zian.


TXALAPARTA Taberna

PATXI Taberna

Bar EGO-GAIN

Bar AITZGORRI

JAI ALAI Taberna



HERGA Kafetegia

Bar GREDOS

SIRIMIRI

BRASILEÑA

GANBARA Bar

ZARAUZTARRA Jatetxea